

Pairatzen ari garen krisi finantzario eta ekonomikoa globalizazio kapitalistaren prozesuaren ondorio da, baita ere epe motzera etekinak lortzearen nagusikeriarena, ekonomiaren finantziarizazioarena eta ondasun mankomunalen merkantilizazioarena. Krisi honen ondorioak larriak dira gizartearen sektore ahulენტzat, milaka pertsonak enpleguaren galerari eta euren bizi eta lan balditzen prekarizazioari aurre egin behar diote.

Testuinguru honetan, krisiari aurre egiteko plaza-ratzen ari diren plan desberdinak gizarte beharrak betetzera bideratuta egon beharrean, enpresa eta kapitalaren inbertsioen errentagarritasuna zuzenduta daude. Lehen gizarte beharrak asetzeko existitzen ez ziren diru-kopurutzarrak, egun, banku eta enpresa pribatuen eskutan jartzen dira.

Plan hauen helburua garbi-garbia da, galeren sozializatzea hain zuzen ere; krisia ahulenok ordaintzea, krisian erantzukizunik ez dugunean. Honen adibide bat Iruña eta Gasteizko Gobernuak onartu nahi dituzten aurrekontuetan aurkitzen dugu, zeinetan ondasunen banaketari uko egiten dioten, hau denean krisiaren ondorioei aurre egiteko bide justu bakarra.

Testuinguru honetan, krisia gure bizkarren gainean eror dadin ugazaberiak hamaika neurri desberdin erabiltzen ditu: aldi baterako kontratu era desberdinak, azpikontratazioaren orokortzea, lanaldiaren malgutasuna eta honetarako lan-egutegiak, txandak eta abar erabiliz ziklo produktiboetara egokitzeko eta Enplegua Erregulatzeko Espedienteak (EEE).

Hau dela-eta, gogoratu sindikalismo amore emailearen ordainezinako laguntzaz ugazaberiak eta gobernu desberdinek langileria banatu

eta erabat ahuldu dutela, zein borroka eta konfrontaziorako mugimendu sindikalean belaunaldi berrien konfiantza.

Konfiantza hori berreskuratu behar dugu, eta berreskuratzeko era bakarra langileen interesen defentsa da, mobilizazio eta borrokaren bidez ugazaberia suntsikorrari eta hauen interesetara makurtzen diren gobernu-politikei aurre egiteko.

- Ugazaberia eta instituzioen aurka **outsiz** krisia ahulen bizkarretik ez dadin erori berriro ere, eta krisiaz jipoituta langabezia, lan-baldintzen prekarizazioa pairatzen edo euren jaioterritara itzularazitakoekin sektoreekin **elkartasuna adieraziz**.
- Krisiaren zama emakumeengan batez ere eror ez dadin, zama hori **detektatuz, salatuz eta ekidinez**.
- Denoi dagozkigun gaietan langile eta hiritarren **parte-hartze zuzena** exijituz.
- **Lortutako eskubideei tinkotasunaz outsiz**. Ugazaberia krisiaz baliatzen da gerorako abantailak ateratzen, krisitik ateratzeko formula balira eta geroari hobeto ekiteko. Horrela egin zuten 80. eta 90. hamarkadetan. Eskubideen galerari aurre egin behar diegu, geroan ez baitago berreskuratzeko modurik.

APADRINA UN BANCO



la hipoteca nunca te abandonará

Como colaborar:

- Congelando los salarios
- Aceptando Expedientes de Regulación
- Con más flexibilidad y más precariedad
- Reduciendo el gasto social
- Discriminando más a emigrantes, jóvenes y mujeres

Ya han colaborado:

- La Reserva Federal de EEUU
- El F.M.I., el Banco Central Europeo...
- Los gobiernos de todo tipo
- El G-8, el G-20, el G...
- El Banco Santander, el BBVA, City Group...

Colabora, hazte socio de:

BANQUEROS SIN FRONTERAS

